Debemos recordar que cuando se produjo el vertido de 2020, José Ignacio Asensio, presidente del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, inicialmente desmintió que fuera un vertido procedente de la incineradora.

Nuevamente, GHK certificó que no se habían producido vertidos y que se desconocía el origen de lo ocurrido.

El 2 de agosto, el periódico GARA hizo públicos los informes técnicos del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco. En dichos informes se señalaba que desde que la incineradora entró en

azaltzen zen 2019an errauskailua proba-lanetan hasi zenetik, dioxina eta furano kontzentrazioak behar baino altuagoak direla Arkaitzerrekan eta hortaz, azterketa eta ikerketa bat egin beharko litzatekeela. Zehazki, datu hauek "instalazioaren segimendu-txostenean" ageri dira, Ekondakin enpresak 2021eko abuztuan eskatutako azterketa baten ondorioz.

2021eko abenduan Idomek egindako beste txosten batek Arkaitzerrekan ageri den fenol kopuruak ezarritako muga gainditzen duela adierazten du. Fenolak hondakin eta plastikoen errekuntzan du jatorria. Txosten berak gomendatzen du lurpeko eta azaleko uren kontrol jarraitu bat egitea.

Azkeneko txosten hauek orain arte GHKk esandakoa gezurtatuko lukete; hau da, errauskailuak ez duela isuririk egiten Arkaitzerrekan.

Nahiz eta txostenak publikoak izan eta denen eskura egon, albiste honen ondorengo egunean, GHKk gezurtatu nahi izan zuen berriro ere bertan azaldutakoa.

Gogorarazi behar dugu Arkaitzerreka erreka ia erabat Donostian dagoela, azken zati txiki batean izan ezik, non Usurbilgo lurraldea zeharkatzen duen Oriara isuri aurretik. Udal Gobernuaren egitekoa da Donostiako ingurumena babestu eta zaintzea.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak orain arte Arkaitzerrekan izandako isurketen, txostenen eta ikerketen berri eman? Zer informazio du Udal Gobernuak? Zer da benetan Arkaitzerrekan gertatzen ari dena?

- Donostiako Udala GHK kontsorzioaren parte izanik, zer iritzi du Zubietako errauskailuan gertatzen ari diren isurketez? Ba al zuen horren berri? Zein informazio jaso du GHKn gai honen inguruan? Zer da honi buruz Donostiako Udalak bertan eman duen informazioa?

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Arkaitzerreka leheneratzeko lanik egin? Zer asmo du eta zer ekintza egingo ditu Udal Gobernuak Donostiako udal mugetan dagoen erreka hau leheneratzeko eta babesteko?

funcionamiento en fase de pruebas en 2019, las concentraciones de dioxina y furano en Arkaitzerreka son superiores a los límites establecidos, por lo que se debería realizar un estudio e investigación. En concreto, estos datos aparecen en «el informe de seguimiento de la instalación», como consecuencia de un estudio solicitado por la empresa Ekondakin en agosto de 2021.

Otro informe realizado por Idom en diciembre de 2021 indica que la cantidad de fenol que se detecta en Arkaitzerreka supera el límite establecido. El fenol procede de la combustión de residuos y plásticos. El mismo informe recomienda un control en continuo de las aguas subterráneas y superficiales.

Estos últimos informes desmienten lo defendido por GHK hasta ahora; es decir, que la incineradora no vierte en Arkaitzerreka.

A pesar de que los informes son públicos y están a disposición de todos, al día siguiente de esta noticia, GHK quiso volver a desmentirlos.

Debemos recordar que Arkaitzerreka se ubica en Donostia / San Sebastián prácticamente en su totalidad, salvo en un pequeño tramo final, que atraviesa el territorio de Usurbil antes de desembocar en el Oria. El Gobierno Municipal debe proteger y vigilar el medio ambiente del municipio.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

-¿Cuál es la razón por la que el Gobierno Municipal no ha informado sobre los informes e investigaciones realizados tras el vertido de Arkaitzerreka?¿De qué información dispone el Gobierno Municipal?¿Qué es lo que está sucediendo realmente en Arkaitzerreka?

- Siendo el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián parte del consorcio GHK, ¿qué opinión tiene sobre los vertidos que se están produciendo en la incineradora de Zubieta?¿Tenía conocimiento de ello?¿Qué información ha recibido en GHK sobre este tema?¿Qué información ha dado allí el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián?

-¿Por qué el Gobierno Municipal no ha llevado a cabo ninguna intervención para recuperar Arkaitzerreka?¿Qué intenciones tiene y qué acciones va a llevar a cabo para recuperar y proteger este arroyo, situado en los límites de Donostia / San Sebastián?

- Asmorik al du Udal Gobernuak Arkaitzerrekan izandako ingurumen kalteengatik inolako erreklamaziorik eskatzeko?

Donostian, 2022ko irailaren 8an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

-¿Tiene intención el Gobierno Municipal de presentar reclamación alguna por los daños medioambientales provocados en Arkaitzerreka?

En San Sebastián, a 8 de septiembre de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Marisol Garmendiak eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Garmendia Beloqui y la Sra. Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Gabonetako argiak direla eta.**

**9.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre las luces de Navidad.**

Garbiñe Alkizak irakurritzat eman du interpelazio hau:

La Sra. Alkiza Lopez de Samaniego da por leída la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkate jaunari gabonetako argiei buruzkoa, hari buruzko azalpenak Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean eman ditzan.

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Eneko Goia Laso, sobre la iluminación navideña, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFIKAZIOA

Gaur egun eragile eta administrazio guztien agendan dago klima-aldaketaren aurkako borroka (larrialdi klimatikoa dagoeneko). Argi dago larrialdi klimatikoa gure ongizatearentzako mehatxu nagusienetarikoa dela eta benetako zibilizazio erronka bilakatu dela. Iraunkortasunik gabeko sistema batean bizi gara, eta iraunkortasun hori lortzeko planifikazioa egin behar dugu, gure sistema sozial eta ekonomiko osoan. Auzi horrek energiaren gaian arreta jartzera garamatza.

Abuztuaren 1ean Espainiako Gobernuak dekretu berri bat kaleratu zuen. Bertan hainbat neurri ezarri dira, gutxienez 2023ko azarora arte iraungo dutenak; hala nola, eraikin publikoetan, saltoki handi eta txikietan, jendearentzat irekita dauden bulegoetan, taberna eta ostatuetan, kulturguneetan eta garraio publikoko eraikinetan berogailuek ezingo dute 19 graduko muga gainditu, eta aire egokituek, 27 gradukoa. Gainera, eraikin horietako kalerako sarrera-irteera guztiak itxita egon beharko dira, berogailua edo aire egokitua jarrita dagoenean. Eta jarduera amaitzean, eraikineko argi guztiak itzali beharko dira; denden kasuan,

JUSTIFIKAZIOA

Actualmente, la lucha contra el cambio climático (ya emergencia climática) está en la agenda de todos los agentes y de todas las administraciones. Es evidente que la emergencia climática es una de las principales amenazas para nuestro bienestar y se ha convertido en un verdadero reto para la civilización. Vivimos en un sistema sin sostenibilidad y, para conseguir tenerla, tenemos que planificar, en lo relativo a todo nuestro sistema social y económico. Esta cuestión nos lleva a centrarnos en la problemática de la energía.

El 1 de agosto, el Gobierno español promulgó un nuevo decreto. En él se establecen una serie de medidas que durarán, al menos, hasta noviembre de 2023, entre las que se encuentran los edificios públicos, los grandes y pequeños comercios, las oficinas abiertas al público, los bares y alojamientos, los espacios culturales y los edificios de transporte público. En ellos, la calefacción no podrá sobrepasar los 19 grados y el aire acondicionado los 27. Además, todas las entradas y salidas a la calle de estos edificios deberán estar cerradas cuando esté en funcionamiento la calefacción o el aire acondicionado. Y, al finalizar la actividad, se apagarán todas las luces del

22:00etan.

Dekretuak eraikinen kanpoko argiztapenari buruzko neurriak ere jasotzen ditu. Adibidez, dendetako erakusleihoetako argiek 22:00etatik aurrera itzalita egon beharko dute. Baita eraikinen eta monumentuen argiztapenak ere, jarduera amaitzen dutenean.

Honen guztiaren helburua, energia kontsumoa murriztea da.

Espainiako Gobernuak hartutako neurriak ez dira aski. Donostiako Udalak ere bestelako neurriak hartu behar ditu benetan larrialdi klimatikoari aurre egin nahi badio. Hori dela eta, trantsizio azkar bat egin behar da sistema berriztagarri batera. Kontua ez da, ordea, ordezkapenak egitera mugatzen; kontsumo joeretan eraginkortasuna bilatu behar dugu eta joerak aldatu.

Mundu mailako erronka hau ez dago Donostiatik at, Donostiari eta donostiarrei eragiten die larrialdi klimatikoak. Cristina Enea Fundazioak 2021eko Iraunkortasunari eta klimari buruzko urteko txostenak dio 2021a inoiz izandako zazpi urterik berorenetako bat izan dela, eta 2021ean emisioak berriro igo direla. Aurtengo uda nolakoa izan den ere ikusi besterik ez dugu, larrialdik klimatikoaren ondorioez, Donostian bertan, jabetzeko.

Hainbat neurri ezarri eta herritarrek beren gain hartzen dituzten bitartean, jakin badakigu aurten Donostia 2022ko Gabonetako Europako hiriburua izendatu dutela, eta “gabon bereziak” izango direla adierazi duela Udal Gobernuak: argiztapena indartuko duela Urumearen inguruan eta argi-proiektu bat sustatzeko enklabe natural baten bila dabilela.

Iaz, 2021ean Donostiako Udalak 410.000 euro gastatu zituen argietan, aurreko urtean baino % 4 gehiago. Mundu mailako larrialdi batean egonik, herritarrak, enpresak eta administrazioak bestelako neurriak hartzen ari diren garai honetan, ezingo genuke ulertu Udal Gobernuak gabonetako argiekin bestelako neurri zuzentzaileak ez hartzea eta energia arduraz ez erabiltzea.

Donostiak 2020ko martxoan larrialdi klimatikoaren egoera deklaratu zuen Adierazpen horretan “egungoak baino asmo handiagoko” konpromisoak hartu behar direla nabarmentzen da, “berotegi-

edificio; en el caso de las tiendas, a las 22:00 horas.

El Decreto recoge también las medidas relativas al alumbrado exterior de los edificios. Por ejemplo, las luces de los escaparates de las tiendas deberán estar apagadas a partir de las 22:00 horas. También se debe apagar la iluminación de los edificios y de los monumentos, una vez finalizada su actividad.

Todo ello con el objetivo de reducir el consumo energético.

Pero las medidas adoptadas por el Gobierno español son insuficientes. El Ayuntamiento de San Sebastián debe adoptar además otras medidas para hacer frente a la situación real de emergencia climática. Esto exige una rápida transición a un sistema renovable. No se trata, sin embargo, de limitarse a sustituir unos sistemas por otros, sino de buscar la eficiencia en las tendencias de consumo y cambiar dichas tendencias.

Este reto mundial no es ajeno a San Sebastián, sino que la emergencia climática afecta tanto a San Sebastián como a la población donostiarra. La Fundación Cristina Enea, en su informe anual sobre sostenibilidad y clima (2021), señala que el año 2021 ha sido uno de los más cálidos de los siete años más cálidos que se habían dado nunca, y que en 2021 las emisiones han vuelto a aumentar. El verano de este año también nos ha mostrado las consecuencias de la emergencia climática en nuestra propia ciudad.

Al mismo tiempo que se establecen una serie de medidas y la ciudadanía las asume, sucede que este año San Sebastián ha sido designada como la capital de Europa de la Navidad 2022, y el Gobierno Municipal ha afirmado que estas serán unas “navidades especiales”, en la que se reforzará la iluminación en torno al Urumea; además, el Gobierno está buscando un enclave natural para promover un proyecto luminoso.

El año pasado, en el 2021, el Ayuntamiento de San Sebastián gastó 410.000 euros en iluminación, un 4 % más que el año anterior. En un momento de emergencia mundial, en el que ciudadanos, empresas y administraciones están tomando otro tipo de medidas en este tema, no podríamos entender que el Gobierno Municipal no tome medidas correctoras con respecto al alumbrado navideño y no utilice la energía de forma responsable.

En la Declaración de San Sebastián de marzo de 2020, en la que se proclamó la situación de emergencia climática, se subrayó la necesidad de “adquirir compromisos más ambiciosos que los actuales”, de modo que se "reduzcan los gases de

efektua eragiten duten gasak murrizteko" eta "karbono-emisio garbiak ahalik eta azkarren zerora murrizteko, lehenbailehen eta lehentasunez". Eta horrela bukatzen du adierazpenak: "Larrialdi-egoera batek gure Udalaren eta gure hiriaren baliabide erabilgarriak birbideratzea eskatzen du, klima-krisiari aurre egiteko, horrek dakartzan arazoekin".

Energia kontsumoaren murrizketa handi baterantz goaz, udazken eta negu "gogorra" datorkigu, eta hortaz, eraldaketa egin behar da sistema berriztagarri batera.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela-eta, aurtengo gabonetarako, Udal Gobernuak, murrizketa planteatu eta herritar eta enpresentzat eredugarri izan beharrean, argien kontsumo eta gastua handitzeko asmoa agertu du?

- Zenbateko aurrekontua aurreikusi du Udal Gobernuak gabonetako argiterian?

Donostian, 2022ko irailaren 8an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Marisol Garmendiak eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:45an Cristina Lagé eta Marisol Garmendia bileratik atera dira)*

*(11:47an Duñike Agirrezabalaga bileratik atera da)*

**<u>10.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Marrutxipin moztutako zuhaitzak direla eta.</u>**

Garbiñe Alkizak irakurritzat eman du interpelazio hau:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, Marrutxipin moztutako zuhaitzei buruzkoa, hari buruzko azalpenak Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean eman ditzan.

efecto invernadero" y "las emisiones netas de carbono se reduzcan lo antes posible a cero, de forma inmediata y prioritaria". Y así concluye la declaración: "Un estado de emergencia implica redirigir los recursos disponibles de nuestro Ayuntamiento y nuestra ciudad, para afrontar la crisis climática, con los problemas asociados."

Nos dirigimos hacia una gran reducción del consumo energético, se acercan un otoño y un invierno "duros", por lo que hay que hacer una transformación a un sistema renovable.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante hace la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué, para las navidades de este año, el Gobierno Municipal, en lugar de plantear una reducción que sirva de ejemplo a ciudadanos y empresas, ha manifestado su intención de aumentar el consumo y el gasto en iluminación?

- ¿Cuál es el presupuesto previsto por el Gobierno Municipal para el alumbrado navideño?

San Sebastián, 8 de septiembre de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen en este punto la Sra. Garmendia Beloqui y la Sra. Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(Las Sras. Lagé Manich y Garmendia Beloqui se retiran de la sesión a las 11:45 h)*

*(La Sra. Agirrezabalaga Ugarte se retira de la sesión a las 11:47 h)*

**<u>10.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los árboles talados en Marrutxipi.</u>**

La Sra. Alkiza Lopez de Samaniego da por leída la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, Eneko Goia Laso, sobre la tala de árboles en Marrutxipi, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainean Marrutxipiko lotunea egiteko lanak hasi ziren. Baina abuztuan gertatu da aurretik hainbat ingurumen eragilek eta bizilagunek salatzen zuten: lotune berria egiteko markatuta zeuden ehunka zuhaitz bota dituzte.

Esan genuenez, Marrutxipiko lotunea egiteko, 542 zuhaitz moztu beharko ziren. Horietatik 180 zuhaitz Udaleko lursail batean daude eta beste 362, Foru Aldundiaren beste lursail batean, aldamenean.

Horri buruz galdetuta, 2021eko irailean, udal eta foru gobernuburuek, adierazpen publikoen bidez, ingurumenean ez zela kalterik izango adierazi zuten. Are gehiago, Etzietako parkea eta haren ingurua ez zela ukituko esan zuten. Baina gaur egun, errealitatea beste bat da eta bertatik pasatzen den orok ongi ikus dezake egindako izugarrizko mozketa eta lur mugimendua.

Eta hau guztia larrialdi klimatikoa bizi dugun garaian, non eta berdeguneak babestu behar diren garaian. Tenperaturek gora egin dutenean eta 2022ko udan azken urteetako errekorrak izan ditugunean. Ahaztu gabe, Donostiako Udaleko Ingurumen Sailaren arabera, tenperaturak gora egiten duen honetan, Intxaurrondo izango dela hiriko tenperatura altuenetakoa izango duen auzoa. Hortaz, artifizializazioa gelditu eta berdeguneak babestu behar ditugu.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta baimendu du Udal Gobernuak zuhaitz mozketa bere lursailean? Zergatik ez du bete 2021eko irailean esandakoa?

- Zenbat zuhaitz moztu diren ba al daki Udal Gobernuak? Zenbat urte zituzten zuhaitz horiek eta zein motatakoak ziren?

- Zer iritzi du Udal Gobernuak egindako mozketaz, etorkizunean Intxaurrondo hiriko tenperatura altuena jasango duen auzoetako bat izango dela jakinik?

- Gaur egun hiri nagusietan mugikortasunarekin dagoen joera ikusirik (hau da, autoaren erabilera murriztea), benetan uste du Udal Gobernuak Marrutxipiko lotune berri hori beharrezkoa dela?

JUSTIFIKAZIOA

En junio, se iniciaron las obras del enlace de Marrutxipi. En relación a ello, el pasado mes de agosto se ha producido algo que ya había sido denunciado por parte de diversos agentes ambientales y vecinas y vecinos: para construir el nuevo enlace, se han talado cientos de árboles que habían sido marcados previamente.

Como habíamos dicho, el enlace de Marrutxipi requeriría la tala de 542 árboles. De ellos, 180 árboles se encontraban en una parcela municipal y otros 362, en una colindante, perteneciente a la Diputación Foral.

Preguntados al respecto, en septiembre de 2021, los jefes de los Gobiernos Municipal y Foral manifestaron, mediante declaraciones públicas, que no se iba a producir ningún daño medioambiental. Incluso dijeron que no se iba a tocar el parque de Etzieta y su entorno. Pero, la realidad es otra, y todo el que pasa por allí puede comprobar la tremenda tala y el movimiento de tierras que se han hecho.

Y todo ello en un momento de emergencia climática, en el que es necesario proteger las zonas verdes. Cuando las temperaturas han aumentado, y en el verano de 2022 hemos alcanzado récords con respecto a los últimos años. Sin olvidar que, según el Departamento de Medio Ambiente del Ayuntamiento de San Sebastián, en un escenario de aumento de la temperatura, Intxaurrondo será uno de los barrios con temperaturas más altas de la ciudad. Por tanto, debemos frenar la artificialización y proteger las zonas verdes.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante hace la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo ha autorizado el Gobierno Municipal la tala de arbolado en su parcela? ¿Por qué no ha cumplido con lo manifestado en septiembre de 2021?

- ¿Sabe el Gobierno Municipal cuántos árboles se han talado? ¿Cuántos años tenían esos árboles, y de qué especie eran?

- ¿Qué opina el Gobierno Municipal de la tala realizada, sabiendo que, en el futuro, Intxaurrondo será uno de los barrios de la ciudad que más temperatura alcanzará?

- Dada la tendencia actual respecto a la movilidad en las principales ciudades (es decir, la reducción del uso del coche particular), ¿realmente considera el Gobierno Municipal que este nuevo enlace de

Benetan uste du egokia dela autoak hiri erdigunera bideratzen jarraitzea?

Donostian, 2022ko irailaren 8an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Marrutxipi es necesario? ¿De verdad cree que es adecuado seguir dirigiendo los coches hacia el centro de la ciudad?

San Sebastián, 8 de septiembre de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Jon Insaustik eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. Insausti Maisterrena y la Sra. Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:56an Cristina Lagé bilerara itzuli da)*

*(La Sra. Lagé Manich se reincorpora a la sesión a las 11:56 h)*

11. eta 20.4. gaiak elkarrekin jorratu dira:

Los asuntos n.º 11 y n.º 20.4. se tratan conjuntamente:

*(12:01ean Duñike Agirrezabalaga eta Marisol Garmendia bilerara sartu dira)*

*(Las Sras. Agirrezabalaga Ugarte y Garmendia Beloqui se incorporan a la sesión a las 12:01 h)*

**11.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Urumean hilik agertu diren animaliak direla eta.**

**11.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los animales muertos en el Urumea.**

Irakurritzat eman dute interpelazio hau:

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Ekologia eta Osasun Publikoko zinegotzi ordezkari Marisol Garmendia Beloki andreari, Urumean hilik agertu diren animaliei buruzkoa, hari buruzko azalpenak Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean eman ditzan.

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta a la concejala delegada de Ecología y Salud Pública, María Soledad Garmendia Beloki, la siguiente interpelación relativa a la aparición de animales muertos en el río Urumea, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Abuztuaren 21ean Eguzkik ohartarazi zuen uretako hainbat hegazti hilik agertzen ari zirela Urumea ibaian eta Cristina Eneko urmaelean. Batez ere, ahate urdinak eta etxeko ahateak ziren.

Uztailaren 28an berriro ere salatu zuten basahateek hilik agertzen jarraitzen zutela, eta gainera, neurri guztietako 50 bat aingira ere hilik agertu zirela.

Udaltzaingoko agenteak, Diputazioko zaindariak eta URA zerbitzuko teknikariak, abuztuaren 27an, bertaratu ziren inguru horretan, egoera ikertzeko. Aldundiaren zerbitzuak ale horietako batzuk jaso zituela jakin dugu.

El 21 de agosto Eguzki alertó de la presencia de aves acuáticas muertas en el río Urumea y en el estanque de Cristina Enea. Se trataba, sobre todo, de patos azules y de patos domésticos.

El 28 de agosto volvieron a denunciar que seguían apareciendo patos muertos y que, además, alrededor de 50 anguilas de todos los tamaños habían aparecido también muertas.

Agentes de la Policía Municipal, vigilantes de la Diputación y personal técnico de URA se personaron en la zona el día 27 de agosto para investigar la situación. Hemos tenido conocimiento de que algunos de estos ejemplares fueron

recogidos por el servicio de la Diputación.

Oraindik Urumean zer gertatzen ari zen jakin gabe, irailaren 7an, Eguzkik berriro ere ohartarazi zuen abuztuaren 21ean hasi zen egoera bera errepikatzen ari zela eta oraingoan bi kaio agertu zirela hilik Urumean, Martutene parean.

Aún sin saber lo que estaba ocurriendo en el río Urumea, el 7 de septiembre, Eguzki advirtió nuevamente de que se estaba volviendo a repetir la situación que había comenzado el 21 de agosto y que en esa ocasión habían aparecido muertas dos gaviotas en el Urumea, a la altura de Martutene.

Egoera errepikatzen ari dela ikusirik, ezinbestekoa ikusten dugu Urumean zer gertatzen ari den jakitea eta dagozkion neurriak hartzea animalia gehiago hilik agertu ez daitezen.

Ante la situación que se está repitiendo, vemos imprescindible conocer lo que está sucediendo en el Urumea y tomar las medidas oportunas para evitar la aparición de nuevos animales muertos.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak orain arte Urumean gertatutakoaren berri eman? Zer informazio du Udal Gobernuak? Zer da Urumean gertatzen ari dena?

-¿Por qué no ha informado el Gobierno Municipal sobre lo ocurrido en el Urumea?¿De qué información dispone el Gobierno Municipal?¿Qué está ocurriendo en el Urumea?

- Zer neurri hartuko ditu Donostiako Udalak animalia gehiago hilik agertu ez daitezen Urumean?

-¿Qué medidas va a adoptar el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián para evitar la aparición de nuevos animales muertos en el Urumea?

Donostian, 2022ko irailaren 8an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

En San Sebastián, a 8 de septiembre de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu”

**20.4.- Galderak, EH BILDU taldeak aurkeztua, Urumean hegazti eta aingira hilak agertzeari buruzkoak.**

**20.4.- Preguntas presentadas por el Grupo Elkarrekin Donostia relativas a la aparición de aves y anguilas muertas en el Urumea.**

Irakurritzat eman dituzte galdera hauek:

Se da por leída las siguientes preguntas:

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 135. artikuluak ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Urumean hegazti eta aingira hilak agertzearen inguruko GALDERA hauek egiten dizkio Ekologiako eta Osasun Publikoko zinegotzi ordezkari Marisol Garmendiari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean AHOZ ERANTZUTEKO.

“Aitzole Araneta Zinkunegi, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta las siguientes PREGUNTAS ORALES a la Concejala Delegada de Ecología y Salud Pública, Marisol Garmendia, relativas a la aparición de aves y anguilas muertas en el urumea, para su respuesta en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Duela aste batzuk, Eguzki talde ekologistak hainbat egunetan ohartarazi zuen Urumea ibaian hamarnaka uretako hegazti eta arrain agertu zirela hilik. Udaltzainak, Foru Aldundiko basozainak eta URAko teknikariak eremu horretara bertaratu ziren, baina ez dira ikerketen emaitzak argitaratu.

Hace unas semanas, el colectivo ecologista Eguzki advirtió varios días diferentes la aparición de decenas de aves acuáticas y peces sin vida en el río Urumea. Tanto agentes de la Guardia Municipal como guardas de la Diputación y técnicos de URA se presentar en la zona, pero no se han publicado los resultados de las investigaciones.

Agerraldi guztiak kontuan hartuz, Donostian ehun animalia baino gehiago agertzen dira hilik, eta oraindik ez dakigu zergatik.

Entre todos los casos de apariciones suman más de un centenar de animales sin vida en diferentes puntos de la ciudad donostiarra con causa desconocida hasta el momento.

Gure ustez, funtsezkoa da animalia horiek Urumea ibaiko eremu jakin batean zergatik hil diren jakitea, eta arrazoi horien jatorria zein den jakitea.

Creemos que es fundamental que se de con las causas que expliquen el por qué del fallecimiento de estos animales en una zona tan determinada del río Urumea y se puede conocer su origen.

Gertakari hori kontuan izanda, honako hau aurkeztu nahi dugu:

Teniendo en cuenta este hecho presentamos la siguiente:

AHOZ ERANTZUTEKO GALDERAK

PREGUNTAS ORALES

1 Ba al dakigu zergatik agertu diren uretako hegaztiak eta arrainak hilda Urumea ibaian?

2 Hala ez bada, nola doa ikerketa?

3 Gertakari horiek kontuan hartuta, udal-gobernuak neurri berezirik hartuko al du?

1. ¿Se sabe ya cuales son las causas de las apariciones de aves acuáticas y peces muertos en el río Urumea?

2. ¿De no ser así, como se está desarrollando la investigación?

3. ¿Va a tomar alguna medidas especial el Gobierno Municipal a partir de estos sucesos?

Donostia, 2022ko irailaren 8an

Sinatua: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea"

Donostia, a 8 de Septiembre de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Marisol Garmendiak, Garbiñe Alkizak eta Aitzole Aranetak hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en estos puntos las Sras. Garmendia Beloqui, Alkiza López de Samaniego y Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:05ean Pilar Arana bileratik atera da eta 12:07an bilerara sartu da)*

*(La Sra. Arana Pérez se retira de la sesión a las 12:05 h y se incorpora a las 12:07 h)*

**12.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Donostiako zaraten mapa estrategikoa dela eta.**

**12.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre el mapa estratégico de ruidos de Donostia.**

Garbiñe Alkizak irakurritzat eman du interpelazio hau:

La Sra. Alkiza Lopez de Samaniego da por leída la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Ekologia eta Osasun Publikoko zinegotzi ordezkari Marisol Garmendia Beloki andreari, Donostiako zaraten mapa estrategikoari buruzkoa, hari buruzko

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta a la concejala delegada de Ecología y Salud Pública, Marisol Garmendia Beloki, la siguiente interpelación relativa al mapa estratégico de ruidos de Donostia, para que dé las

azalpenak Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailean, AAC Centro de Acústica Aplicada, S.L. enpresak egindako zaraten mapa estrategikoari buruzko txostena ezagutu genuen. Bertan azaltzen zenez, 60.000 bizilagun inguruk gehiegizko zaratak pairatzen dituzte gauez. Errepide- eta trenbide-zirkulazioko ardatz nagusietatik hurbil daude eremu arriskutsuenak. Errepideei dagokienez, Intxaurrondotik igarotzen den GI-20 saihesbidea eta Gi-41 errepidea dira zaratatsuenak. Trenbide-trafikoari dagokionez, ADIFeko bideetara bideratutako fatxadak izango lirateke, batez ere Groseko bihurgunearen ingurua. ETSren lineari dagokionez, Errondo pasealekuko bihurgunean du eraginik handiena; hain zuzen ere, bizilagunek bertan zarata murrizteko neurriak har daitezen eskatu duten eremuan. Kale zaratatsuenei dagokienez, honako hauek dira: Zarautz etorbidea, Errotaburu pasealekua, Zumalakarregi, Lugaritz, Urbieta, Miracruz, Nafarroa etorbidea, Jose Elosegi Alkatearen etorbidea eta Pasaiako Portuaren etorbidea.

Txostenaren arabera, zaratak identifikatu ondoren neurri zuzentzaileak ezarri beharko lirateke edo, ahal dela, zarata-iturriari irtenbideak bilatu.

Udal Gobernuak, ordea, ez du inongo neurririk hartu.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak neurririk hartu gaueko zaratak murrizteko?

- Zer neurri zuzentzaile hartuko ditu hemendik aurrera Udal Gobernuak aipatzen diren eremuetan, errepide eta trenbide-eremuetan, zaratak murrizteko?

- Asmoa al du Udal Gobernuak txosten honi erantzungo dion ekintza-planik egiteko? Noiz egingo du eta zer neurri-zuzentzaile jasoko ditu?

Donostian, 2022ko irailaren 8an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Marisol Garmendiak eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

explicaciones pertinentes en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

En el mes de julio conocimos el informe sobre el mapa estratégico de ruidos elaborado por AAC Centro de Acústica Aplicada, S.L. En ella se señalaba que alrededor de 60.000 vecinas y vecinos sufren ruidos excesivos durante la noche. Las zonas más peligrosas se sitúan cerca de los ejes principales de circulación viaria y ferroviaria. En cuanto a carreteras, la variante GI-20 a su paso por Intxaurrondo y la carretera GI-41 son las que mayor ruido provocan. En cuanto al tráfico ferroviario, se trataría de fachadas que dan a los viales de ADIF, especialmente en el entorno de la curva de Gros. En cuanto a la línea de ETS, la principal afección se produce en la curva del paseo de Errondo, zona en la que vecinas y vecinos han solicitado medidas para reducir el ruido. Las calles que presentan mayor nivel de ruido son las siguientes: avenida de Zarautz, paseo de Errotaburu, Zumalakarregi, Lugaritz, Urbieta, Miracruz, avenida de Navarra, avenida del Alcalde José Elosegi y avenida del Puerto de Pasaia.

El informe considera que una vez identificados los ruidos se deberían establecer medidas correctoras o, si es posible, buscar soluciones a la fuente de ruido.

Sin embargo, el Gobierno Municipal no ha adoptado ninguna medida al respecto.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

-¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha adoptado medidas para reducir los ruidos nocturnos?

-¿Qué medidas correctoras va a adoptar el Gobierno Municipal a partir de ahora para reducir el ruido en las zonas, carreteras y zonas ferroviarias señaladas?

-¿Tiene intención el Gobierno Municipal de elaborar un plan de acción que dé una respuesta a este informe?¿Cuándo piensa elaborarlo y qué medidas correctoras va a incluir?

En San Sebastián, a 8 de septiembre de 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu”

Intervienen en este punto las Sras. Garmendia Beloqui y Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión

incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:11n Marisol Garmendia eta Duñike Agirrezabalaga bileratik atera dira)*

*(Las Sras. Garmendia Beloqui y Aguirrezabalaga Ugarte se retiran de la sesión a las 12:11h)*

*(12:13an Zigor Etxeburua bilerara sartu da)*

*(El Sr. Etxeburua Urbizu se incorpora a la sesión a las 12:13 h)*

**13.- Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, hiriko zenbait auzotan erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko logelak ugaritzeari buruz.**

**13.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre la proliferación de viviendas de uso turístico y habitaciones de uso turístico en determinados barrios de la ciudad.**

Ricardo Burutaranek hurrengo interpelazioa azaldu du:

El Sr. Burutarán Ferré presenta la siguiente interpelación:

"Ricardo Burutaran Ferré EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, honako INTERPELAZIO hau aurkezten dio alkateri, hiriko zenbait auzotan erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko logelak ugaritzeari buruzkoa, Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean, hori ahoz erantzun dezan.

"Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, para su respuesta oral en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio, sobre la proliferación de viviendas de uso turístico y habitaciones de uso turístico en determinados barrios de la ciudad.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

